



AZALPENA

Sekuentzia didaktiko honetan ikasleek euren herri edo hirietako ornodunak nahiz ornogabeak hobeto ezagutzeko jarduerak topatuko dituzu, marrazketa eta datu bilketaren bitartez euren ingurua hobeto ezagutu dezaten.

KRONOGRAMA

2-3 saio eta behaketarako tarte beharko dira sekuentzia didaktiko hau burutzeko.

	1. SAIOA	2. SAIOA
1. JARDUERA		
2. JARDUERA		
3. JARDUERA		
4. JARDUERA		
5. JARDUERA		





1. JARDUERA: Aurrezagutzak arakatzen

Animalien sailkapena gelan landu ostean, norberaren ingurua arakatu eta hobeto ezagutzeko unea da.

Kanpora atera eta behaketak egiten hasi aurretik ordea ikasle bakoitzaren aurrezagutzak ezagutzea komeni da. Horretarako, ikasleek banaka edo taldeka [1. eranskina](#) bete beharko dute.

Fitxa bete ondoren, emaitzak eta iritziak talde handian partekatuko dira.

2. JARDUERA: Talde lana I

Ikasleen usteak ziurtatu edo baztertzeko unea iritsi da. Horretarako, ikasleak taldeka jarri eta euren herriko nahiz eskolako leku edo zona bat aukeratu beharko dute behaketa egiteko. Beharrezko izanez gero, Google maps edo antzeko orrialdeak bisita ditzakete.

Behin lekua zein den argi izanda, aukeratutako zonaldearen mapa sortu beharko dute. Mapa osatzeko estrategia ezberdinak baliatu ditzakete ikasleek: kalkatu, kopia, argazkia atera, eta abar. Arbel digitala ere erabil daiteke ikasleei adibide gisa zer egin adierazteko. Dena den [2. eranskinean](#) ikasleak aukeratutako zonaldeko mapa elkarlanean osatzeko argibideak aurkituko dituzu.

Mapa amaitu ostean, irakasleak maparen fotokopiak egin eta taldekideen artean banatu beharko ditu ikasleek behaketak egin ditzaten.

Behaketak egiteko, [3. eranskina](#) baliatu beharko dute ikasleek. Honenbestez, komenigarria da fitxa hau gelan behatzea eta ikasleei izan ditzaketen zalantzak ondo argitzea.

OHARRAK:

Behaketen iraupena aldakorra izan daiteke, saio batean egin daiteke edo bi egunez, astebetez... Beraz, behaketen iraupena ikasleekin zehaztu daiteke edo zuzenean irakasleak zehaztu.



3. JARDUERA: Datuekin jolasean

Lehenik, taldekide bakoitzak ikusitako ornodun eta ornogabeen analisia egingo du banaka. Horretarako [4. eranskina](#) baliatuz.

Behin grafikoak sortu ostean, datuak gainerako taldekideekin partekatzeke unea da. Lortutako datuak elkarrekin partekatuko dituzte.

Talde txikitan, beste barra-diagrama bat egin beharko dute taldekide guztien datuak barneratu eta datu orokorrekin. Horretarako ere balia daiteke [4. eranskina](#).

4. JARDUERA: Datuak komunikatuz

Bildutako datuak apur bat hobeto ezagutu ostean, datuok aurkezteko unea iritsi da. Ikasle-talde bakoitzak kartulina batean islatu beharko ditu behaketetan bildutako datuak.

Horretarako, kartulinan eurek ikertu duten lekuaren mapa txertatu beharko dute eta ikusitako animaliak bertan kokatu. Animaliak kokatzerako unean, talde bakoitzak aukeratuko du zehaztasun maila. Izan ere, posible da talde batek behatutako ornodunak puntu edo gomets urdinez adieraztea eta ornogabeak, aldiz, puntu edo gomets gorriz. Beste talde batek agian zehatzagoa izan nahi du eta ikusitako animaliak marraztuko dituzte mapan.

Behatutako animalien tamainak oso aldakorrak izan daitezkeenez gero, ikasleei lupak erabiltzeko aukera eskaini dakieke, [5. eranskineko](#) adibideak erakutsiz.

Mapaz gain, lortutako gainerako datuak, grafikoak, ere adierazi beharko dituzte ikasle taldeek euren kartulinan.

Azkenik, datuen komunikazio posterra amaitzeko, ikasleek taldean [6. eranskineko](#) galderen inguruan hausnartu beharko dute eta ateratako ondorio ere kartulinan islatu.



5. JARDUERA: Hausnar dezagun berriz

Sekuentzia didaktikoarekin amaitzeko talde handian **1.eranskin**eko galderak erantzuten saiatu beharko dira ikasleak.